



**+XO!**



**2024**



## IZAKI BITXIAK

Cristina Sitja Rubio

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

2024  
OTSAILA

Behin batean, basoko animaliek afixa misteriotsu bat aurkitzen dute, hitz honekin: JAIA! Cumbia, saltsa eta arin-arina dantzatu, eta txokolate tarta piloa jaten dute. Baina, etxera itzultzean, hura ezustea! Aterpe zituzten zuhaitzak ez daude, eta ingurune guztia hondatuta ageri da. Nola elikatuko dira? Non egingen dute lo? Izaki bitxiak —jendea— haien bizitokiak txikitu dituzte. Izadiarekin eta animaliekin bizikidetzaren harmoniatsua aldarrikatzen du liburu honek, bai eta espezieen arteko hierarkiak ezeztatzen eta munduaren ikuspegi zabala-go bat proposatzen ere

### HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-97-5**  
ORRIALDEAK: **48**  
FORMATOA: **230 x 320 mm**  
PREZIOA: **19,95 €**

4 urtetik aurrera

INGURUMENA

ANTIESPEZISMOA

EKOLOGIA

HAUR LITERATURA

TXO!

### Nabarmentzekoak:

- Izadiaren, pertsonen eta animalien arteko bizikidetzaren harmoniatsua aldarrikatzen du liburu honek, hierarkia oro gaitzetsiz.
- Cristina Sitja Rubio autore arrakastatsuen albumik ezagunena da, aurrez hainbat hizkuntzatan argitaratu dutena.
- Eskuz egindako letrak eta orrialdeak osorik betetzen dituzten arkatzezko irudi ikusgarriak ditu.



**CRISTINA SITJA RUBIO** Caracasen jaio zen eta Arte Ederrak ikasi zituen Montrealen. Geroago koloretako argazkigintzan eta inprimaketan espezializatu zen. 2007an, ilustratzaile bihurtzea erabaki zuen, eta harrezkero hainbat ilustrazio liburu arrakastatsu sortu ditu, esate batera, *Izaki bitxiak* (jatorrizkoan, *Etranges créatures*, Éditions Notari, 2013). Cristina Berlin eta Bartzelona artean bizi eta lan egiten du




**+XO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



2024  
APIRILA



# DARDARAK

Idazlea: Karmele Mitxelena

Ilustratzailea: Irene Irureta

Jatorrizko ideia: Joana Aurrekoetxea

Maritxu eta Katalina teiltupe berean bizi dira. Zeru horren babesean, zimurrak eta urteak zenbatzen dizkiote elkarri. Bietatik dituzte ugari. Azkenaldian, ordea, zeru berak dar-dar egiten du maiz, eta, lurrikarek bezala, haien barrenean erreplikak ditu dardara horrek. Teiltupe osoa hotzikarak hartzen duen egunera arte.

Bi emakume adinduren arteko maitasuna eta elkar zaintza du ardatz liburu honek, bai eta "etxe" esaten ahal zaion aterpe baten beharra aldarrikatzen ere.

## HAUR LITERATURA

ISBN: 978-84-19319-99-9  
ORRIALDEAK: 40  
FORMATOA: 250 x 240 mm  
PREZIOA: 16,00 €

6 urtetik aurrera

HAUR LITERATURA

TXO!

### Nabarmentzekoak:

- Bi emakume adinduren arteko maitasuna eta elkar zaintza du ardatz.
- "Etxe" esaten ahal zaion aterpe baten beharra agerian geratzen da.
- Testu labur eta poetikoak eta orrialde osoko irudi koloretsuak elkarren osagarri dira.



### KARMELE MITXELENA

1988, Oiartzun (Gipuzkoa) Lehen hezkuntzako irakasle ikasketak egin zituen EHUn, eta ondoren Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua, Haur Hezkuntzako gradua eta Hezkuntza Psikomotrizitateko ikasketak. Bere liburuen artean, *Erakuslehioan* (Erein), *Haragizko mamuak* (Elkar) eta *Marrubizko uda* (Elkar).



### IRENE IRURETA

Zumaia (Gipuzkoa) Ilustratzailea eta Arte Ederretan lizentziatua. 2016. urtean Irrimarra bikote sortzaileetako bat Karmele Gorroñorekin batera. Albur ilustratuak, kartelak, prentsarako irudiak eta horma-irudiak ditu bere lanen artean.



**+XO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus www.txalaparta.eus



2024  
APIRILA



## HEMEN ETA ORAIN

Laura Brand, Freya Hartas (ilus.)

Itzultzailea: Amaia Apalauza

Gure inguruan, natura etengabe ari da aldatzen, hazten...eta lanean. Egunero, ordutik ordura, aldaketa magikoak gertatzen dira gure begien aurrean, nahiz beti ez den erraza ikustea...Gozatu naturari buruzko hogeit hamar istorio hauekin, eta hartu horretarako behar den denbora guztia. Gero, zoaz esploratzera...eta ikusiko duzu zer gertatzen den hemen eta orain.

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-82-1**  
ORRIALDEAK: **52**  
NEURRIAK: **235 x 295**  
PREZIOA: **21,00 €**

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ZIENTZIA ETA NATURA

- Naturari buruzko 20 istorio, patxadaz bizitzeko, begiratzen ikasteko eta gauzarik txikienkin liluratzeko.
- Freya Hartas eta Laura Brand egileen liburu arrakastatsu honek dei egiten digu presente egotera eta hemen eta orain bizitzera, azeleragailuaren pedalaz ahaztuta.
- Testu deskribatzaileek ilustrazio ederrak dituzte lagun, hala izaki nola paisaia eta landare, inguruan ditugun natura horren guztiaren adierazle.



#### LAURA BRAND

Laura idazlea eta ilustratzailea da. Ingalaterrako landa-eremuan bizi da, bere familiarekin eta animaliekin. Artearekin esperimentatuz eta sormena landuz lan egiten du, eta haur zein helduentzako ikastaroak ematen ditu. Artea eta naturarekiko lotura uztartzen ditu, sinetsita baitago hori dela buru-osasunaren eta ongizatearen funtsa.



#### FREYA HARTAS

Freya ilustratzaileak haurrentzako liburuarentzako irudiak egiten ditu. Bristol hiri zirrarragarrian bizi da, bere bikotekidearekin eta Katsu katu beltz zaharrarekin, eta bulego partekatua batean lan egiten du, atsegina bezain nahasia. Ilustrazio ikasketak egin zituen Falmouth Unibertsitatean, eta ohorezko matrikula eman zioten, 2014an. Pertsonaia, animalia eta munstro dibertigarriak asmatzea eta haiantzako fantasiako munduak sortzea maite du. Liburu ilustratuak eta haur helduagoentzako liburu klasikoetako irudiak marraztu ditu.




**+XO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eu  
www.txalaparta.eu







# NAHI NUKE

Olivier Tallec

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz


2024  
IRAILA

Katagorria ez dago konforme katagorria izatearekin. Nahi luke beste zerbait izan, eta basoko animaliei begira dagoela, denak iruditzen zaizkio desiragarri oreina izanen naiz? Hontza? Trikua? aiatu ere saiatzen da beste bat izaten... Alferrik.

## HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-10246-11-9**  
ORRIALDEAK: **36**  
FORMATOA: **200 x 280 mm**  
PREZIOA: **17,50 €**

5 urtetik aurrera




**OLIVIER TALLEC** 1970ean sortu zen, Morlaix-en (Bretainia). Duperré arte eskolan ikasketak egin eta gero, bidaiatzen jardun zen Asian, Brasilen, Madagaskarren, Txilen... Harik eta halako batean publizitatearen arloan grafista lanetan hasi zen arte. Gaur egun Parisen bizi da, eta prentsa idatzirako ilustrazioak egiten ditu (*Libération*, *Elle*, *Les Inrockuptibles*). Haur eta gazteentzako berrogeita hamar liburu baino gehiago argitaratu ditu, bai eta komikiak ere Rue de Sèvres argitaletxean.

### Nabarmentzekoak:

- Serie arrakastatsu baten hirugarren alea, hamar hizkuntzatarata baino gehiagotara itzulia.
- Norberaren identitateaz eta beste norbait izan nahiaz gogoetatzen du album umoretsu honek, pertsonaia karismatiko baten eskutik.
- Orrialde osoko irudi adierazgarriak eta testu labur irriarriak.
- Libr'à Nous 2022 saria.

### SERIE BEREAN:



**+XO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



2024  
URRIA



## AIRERATZEKO PREST

Cori Doerrfeld

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Ametsek paperezko hegazkin bat egin du, eta irrikaz dago hegan ikusteko!

Hegaldatu baino lehen, ordea, arrano bat agertu da eta esan dio hegazkina txikiegia dela. Beraz, Ametsek aldaketa batzuk egin diz-kio. Orduan, hegazkin handiago hori aireratu aurretik, papagai bat tematu zaio dotoreagoa izan behar duela.

Hegazti batek beste baten atzetik aholkuak eman ahala, Ametsen konfiantza birrindu egiten da... harik eta ustekabeko ahots batek lagundu eta azkenean hegazkina hegaldatzen duen arte.

### HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-10246-19-5**  
ORRIALDEAK: **40**  
FORMATUA: **200 x 280 mm**  
PREZIOA: **17,00 €**

3 urtetik aurrera

LAGUNTASUNA

AUTOKONFIANTZA

BABESA



### CORI DOERRFELD

Haurrentzako liburuak ilustratu ditu, eta bereziki ezaguna da haren *The Rabbit Listened* (2018) [*Eta untxiak entzun*], hamaika hizkuntzataraz itzuli eta beste horrenbeste sari jaso baititu. Beste liburu ezagun batzuk ere baditu, hala nola *Little Bunny Foo Foo: The Real Story* eta *The True Adventures of Esther the Wonder Pig*.

- *Aireratzeko prest* norbere buruarengan sinesteari buruzko istorioa da, bai eta hauspoa emanen dizun lagun bat izatearen indarrari buruzkoa ere.
- *Eta untxiak entzun* album arrakastatsuan egin bezala, egileak soberako hitzik gabe eta ilustrazio xamurren bidez kontatzen du ipuin goxo hau.
- Iruzkinek diote: «Atzerako kontaketa errepikari eta etenaldi ugariei esker, gozamen hutsa da ozenki irakurtzea.» *Kirkus Review*.

### AUTORE BERAREN BESTE TITULU BAT:



**+xO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



2024  
AZAROA



# ZU HOR ETA NI HEMEN

Exprai

Marrazki bat aurkitu du liburu honetako protagonistak, eta haren jabea bilatzeko bideari ekiten dio. Hondatutako kaleetan bilatzen du, txikitutako eraikinetan eta ilaran edo ihesean den jendearen artean, laguna onik ote dagoen jakin nahian. Errimadun testuek irakurketa ozena sustatzen dute, eta hurren egunerokoari buruzko galderak izanik – beren ohituren, harremanen, kezken... ingurukoak –, elkarrizketa bultzatzen dute. Finean, liburuak gerra bizi duten hurrei buruzko hausnarketara gonbidatzen gaitu, enpatia lantzeko bide emanez.

## HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-10246-30-0**  
ORRIALDEAK: **44**  
FORMATUA: **230 x 230 mm**  
PREZIOA: **XX €**

6 urtetik aurrera

PALESTINA

LAGUNTASUNA

BERTSOA

GERRA


- Palestinaren oihartzunak aditzen dira liburu honetan, baina berdin izan zitekeen gerra testuinguru batean dagoen edozein herri. Gerra egoeran, haur bat hurrarena egiten agertzen zaigu, eta irakurleari zuzentzen zaio bere egunerokoaz galdezka.
- Testua bertotan emana dagoenez, ozen irakurtzeko aproposa da, errima eta erritmoa lagun.
- Joseba Beramendi Exprai marrazkilariak komikiaren arloan hartutako esperientzia nabari da hurrei zuzentzen zaien lehen liburu honetan.



**JOSEBA BERAMENDI, EXPRAI**  
1973, Iruñea

Askotariko komunikabidetan marraztu du, paperezko prentsan zein agerkari digitaletan, baita publizitate-rako, telebistarako, zinemarako eta –bitxia dirudien arren– irratirako ere. Era berean, komikigintzan saiakera grafikoa landu du eta umore grafikoa jorratzen jarraitzen du egunkari zein aldizkaritan, liburuen ilustrazioarekin batera.

<< Nola jokatzeko duzu deus ez ulertzean? Erantzunak bilatzen? Babesten lurpean? Lagunak ulertzea zailtzen zaizunean, gordetzen al dituzu zure bihotzean? >>




**+XO!**

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus







## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-80-7**  
ORRIALDEAK: **64**  
PREZIOA: **18,00 €**

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

KOMIKIA KLASIKOAK NARRATIBA

- Klasiko bat, gazteei egokitua eta komikiaren hizkuntzara ekarria.
- George Orwellen obrarik ezagunena koloretako ilustrazio errealista eta fabula satirikoaren zorrotasun berarekin kontatua.
- Idatzi zuenetik mende erdi baino gehiago eta hainbat gerra pasatu diren arren, autoritarismoari egiten dion kritikak ez du, tamalez, gaurkotasunik galdu, eta bidea ematen du orduko egoera gaur egungoarekin dialogoan jartzeko.

# ABEREEN ETXALDEA

Thomas Labourot, Maxe L'Hermenier, Parada

Itzultzailea: Aiora Jaka

2024  
URTARRILA

Ingalaterrako etxalde bateko abereek, gizakientzat lan egiteaz aspertuta, matxinatzea erabakitzen dute. Nagusia kanporatuta, abereek berek kudeatutako etxalde bat antolatzen dute, eta erregimen berri bat ezartzen, Animalismoa, animalia guztientzako berdintasuna eta oparotasuna hitzematzen dituen. Berehala, ordea, desadostasunak agertzen dira Elur Bola idealistaren eta haren arerio Napoleonen artean. Azken horrek, Elur Bola traidoretzat jo eta etxaldetik egotzi ondoren, erregimen totalitario bat ezartzen du, txerriak direlarik botere guztien jabe.

Abereentzat, bizitza gero eta gogorragoa bilakatzen da, eta txerriek, pixkanaka, gizakien jarrera desatsegina hartzen dute. Horrela, hasierako utopia demokratikoa endekatzen joaten da; izan ere, "abere guztiak berdinak dira, baina batzuk besteak baino berdina goak".

Animalien fabula honen bidez, George Orwellek distopia bat proposatzen du, erregimen autoritarioen satira bizia.

### THOMAS LABOUROT

Thomas Labourotek *Prophecy* rol-jokoaren ilustrazioan ekin zion bere karrerari. 2004an, Jean-David Morvan ezagutu zuen, eta, harekin batera, *Troll* komiki-bilduma berrartu zuen. Gero, Séverine Gauthier gidoilariarekin kolaboratu zuen *Noodles* eta *Team Galaxy* komikiak sortzeko (Soleil argitaletxea). Bi artistek elkarrekin egin zituzten, halaber, *Washita* (Dargaud argitaletxea) eta *Rue de Sèvres* (Aliénor Mandragore argitaletxea). Jungle argitaletxearentzat ere aritu izan da, *Bohémian Galion* bilduma argitaratuta (Maxe L'Hermenier gidoilari). Reimsen bizi da.


### MAXE L'HERMENIER

Maxe L'Hermenier komiki-gidoilari frantses bat da, oso egile emankorra. Askotariko unibertsoetan idatzi izan du, errealismotik hasi eta umoreraino, zientzia-fikziotik ere pasatuz. 2018an, *Jungle Pépites* bilduma irudikatu zuen, gazte literatura komiki formatura egokitzen duen bilduma pedagogikoa. Bilduma honen barruan, hainbat izen handi bildu dira; besteak beste J.C. Mourlevat, Pierre Bottero, Victor Hugo, J.C. Noguès eta beste asko. Reimsetik gertu bizi da.

### PARADA

Diego L. Parada marrazkilaria grafiko eta komikilaria espainiar bat da, eta freelance moduan egiten du lan.





# ZENBAT LO

Iraitz Lizarraga Gomez, Izaro Lizarraga Galdos

2024  
MARTXOA

Zenbat lo loreak usteltzeko.  
Zenbat lo begirik bildu gabe.  
Zenbat lo zurekin amesten.  
Zenbat lo harresia zeharkatzeko.  
Zenbat lo zu besarkatzeko.  
Zenbat lo ur freskotan oinak bustitzeko.  
Zenbat lo?

Haur batek kartzelarekin eta preso duten amarekin zer harreman duen kontatzen du liburu honek, Nekane Txapartegiren eta bere alabaren historia oinarri hartuta. Afektuak eta jolasak hala testua nola ilustrazioak blaitzen dituzte gaztetxo zein helduentzako obra poetiko eder honetan.

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-98-2**  
ORRIALDEAK: **40**  
NEURRIAK: **230 x 230**  
PREZIOA: **16,00 €**

GAZTE LITERATURA

LIBURU ILUSTRATUA

HAUR MOTXILADUNAK

ESPETXEA

- Haur batek kartzelarekin eta preso duten amarekin zer harreman duen kontatzen du liburu honek, Nekane Txapartegiren eta bere alabaren historia oinarri hartuta.
- Haurren mundua eta helduen mundua nahastu egiten da gaztetxo zein helduentzako obra eder honetan.
- Testu poetikoa eta ilustrazio iradokitzailleak ibaia bezala isurtzen dira, eta gogoetari eta ametsari bide ematen diete.



### IRAITZ LIZARRAGA GOMEZ

Antzerki ikasketetan doktoretza egina du, eta gorputz adierazpena, antzerkigintza eta zirku akrobaziei lotuta egin du bere ibilbidea. Aktore lanetan aritu da hainbat konpainiatan, esate batera, Pikor, Txalo, Artedrama eta Trapu Zaharra taldetan, baita Gure Zirkuan ere aireko akrobata gisara. Zuzendari eta gidoilari lanetan ere aritu da, esate baterako Lankuk ekoitzitako "Teilatupean" obran.



### IZARO LIZARRAGA GALDOS

Txikitandik ibili da sormenaren zirrikituak arakatzen. Bide horretatik egin zituen ikasketa formalak: Arte Ederrak eta Artearen historia lizentziak lehenik eta Diseinuko goi ikasketak gero; orduan, bere kabuz marrazten jarraitu du eta sorkuntzaren unibertsoan kokatu du bizi-esperientziaren haria. Ogibidez, beti aritu da sormenari loturiko jardunetan. Azken urteetan, ipuinen eta album ilustratuen munduak liluratuta, haur literaturarako ilustrazioak sortzeari ekin dio.



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



2024  
AZAROA

# ITSASOA BETE URRE

Daniel Martirena Indart

Ilustratzailea: Ana Ibañez

## ITSASOA BETE URRE

DANI MARTIRENA  
ANA IBAÑEZ

txalaparta

### AXURI BELTZA

ISBN: **978-84-10246-27-0**  
ORRIALDEAK: **32**  
FORMATUA: **210 x 280 mm**  
PREZIOA: **17,50 €**

8 urtetik aurrera

INMIGRAZIOA

MIGRAZIOAK

GAZTEAK

- Irudi abstraktuak eta iradokitzaileak lagun izanen ditu irakurleak, migrazioari buruzko istorio gordin eta poetikoa largabisten bidez deskubritzeko.
- Etiketek irrist egiten dioten artefaktu literarioa da hau, lehen zirriborroak marrazten ikasten direnetik irakurtzeari uzten zaion artean den ororentzat pentsatua eta eskainia.
- 2022. urtean Iruñeko Arte eta Diseinu eskolak proposamen artistiko onenaren aitortza eman zion liburuaren oinarri den grabatu sorta honi. *Kirkus Review*.



### DANI MARTIRENA INDART

(Legasa, 1973)

Oroitzen du, umetan, idazlan baten agindua izaten zuela eskolako manatu guztien artean gozoena. Kazetaritza ikasketak egin zituen unibertsitatean, eta hasieran prentsa idatziari heldu bazion ere, azken urteotan EITBko albistegietan erredaktore ari da, non igurtzi poetikoari eusten dion nahikoa maiz. Literaturari erreparatuta, hainbat sari jaso ditu, idatzi izan dituelako maitasun gutunak, ipuin erotikoak eta narrazio laburrak. Haurrentzako literaturari begira, autoekoizpenaren bidetik Liburu iletsuak zigilua sortu zuen Ana Ibañezekin batera, eta argitaletxe horren labetik emanak dira *Hankaz gora du amak mundua*, *Jonek Jone izan nahi du* eta *Amonarenean kea*. *Cosimoren katiuskak* album ilustratua, berriz, Pamiela argitaletxeak argitaratu zuen Etxepare Saria irabazi ostean. Orain, Ibañezen irudi lausoen gurdian, *Itsasoa bete urre* dakar, iritzita urrea dela bertan kontaktzen dena eta argi utzita hamaika direla ozeanoetan erpinak, izkinak eta distirak.



### ANA IBAÑEZ

(Iruñea, 1972)

Zirriborrolaria, marrazkilaria, eskultorea, margolaria eta ilustratzailea. Soberakinekin eta mozketekin lan egiten du, berdin delarik puska horiek oihal izan, paper edo hari. Argitara eman dituen liburuen artean daude *Hankaz gora du amak mundua*, *Jonek Jone izan nahi du*, *Amonarenean kea* eta *Cosimoren katiuskak*, denak Dani Martirenaren testuekin. Azken album horrek Etxepare Saria jaso zuen 2018an, eta epaimahaiak ilustrazioen ekarpen ausarta nabarmendu zuen. Orain, elkarlan beretik, *Itsasoa bete urre* dute mundura emana, ohikoan legez munduaren oinazeak sendatzen laguntzeko.



**+XO!**

txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus



**Txalaparta Argitaletxean 36 urte daramatzagu liburuak argitaratzen. Mila izenburu baino gehiago bizkarrean, fikzio, ez fikzio, haur eta gazte literatura, eta baita komikia ere.**

**Txikiak izanda ere gure helburua ahalik eta zerbitzu onena eta gertukoena eskeintzea eta ematea da. Gure irakurleak dira garrantzitsuena.**

En la Editorial Txalaparta llevamos 36 años publicando libros. Con más de mil títulos a nuestras espaldas, de ficción, no ficción, literatura infantil y juvenil, y también cómic.

Aunque somos pequeños, nuestro objetivo es ofrecer y dar el mejor y más cercano servicio posible. Nuestros lectoras y lectores son lo más importante.



948 703 934 - 607747 567 | [web@txalaparta.eus](mailto:web@txalaparta.eus)  
[www.txalaparta.eus](http://www.txalaparta.eus)